

**Xavier Masllorens** •  
Mugarik Gabeko Hezkuntza  
erakundeko zuzendari nagusia

# «Elkartasuna murriztuz, gizarte zekena bihurtuko gara»

Masllorensek ohartarazi du komunitateen garapenaren alde lanean ari den kate oso bat «suntsitzea» dakarrela lanbidetzarako laguntzak murrizteak.

## Aihoa Sarasola

Hainbat herrialdetan garapenerako hezkuntza sustatzen du Mugarik Gabeko Hezkuntza erakundeak. Hainbat proiektu ditu martxan komunitateak etorkizunari begira ahalmenez hornitzeako, baina asko ezin izango ditu gehiago hultzatu, diru laguntza publikoen murrizketengatik. «Nahiko da» esateko garaia iritsia dela uste du Xavier Masllorensek (Barzelona, 1951), elkarteko zuzendari nagusiak.

**G Zehatze bertan behera diru laguntzak gutxitu direlako?**

**E** Martxan ditugun 65 proiektuetatik hogei inguru, heren bat, utzi behar izan ditugu bazterrean, baina denak ez dira izatera berreakoak. Institutuzio publikoek ez dituztelako ordaintzen utzi behar izan ditugu; beste batzuk, ez dugulako topatu babesle publiko berririk; eta beste batzuetan, jildo berriak irekitzeko asmoa bera geratu da bertan behera.

**G Nola eragiten die horrek proiektua jasotzen zuten komunitateei?**

**E** Askio eragiten die. Esaterako, Boliviari, urri eta aumara komunitateen hezkuntza elebiduna eta lehen hezkuntza susztatzeak elkarlanean ari garen fundazioak esan digu harago inprentei ere eragiten die. Espaniaren lanbidetzarako laguntza, BPGaren 0,5 izan ondoren, 0,2 da orain; izugarria da: %70 gutxitu da ia, eta horrek eragin du Boliviako lanbidetza zerbitzuei kalte egitea. Beste adibide bat: Peru hegoaldean, Arequipa aldean bigarren hezkuntza lanbidetza biakatzten ari zen leku batean, utzi behar izan digu eskoletan lanerako hainbat tailer sortzea laguntzeari.

**G Proiektua bertan behera utzi behar duzuela azaltzen diezuenean, zer esaten dizutezue hain?**

**E** Lehen erantzuna da ulertzen dutela eta gurekin lanbidetza jarraituko dutela. Baina ez badago proiektu komunik, nahiz eta desio edo helburu komun bat izan, oso zaila da erakunde horrekin harremanetan segitzea.

**G Beraz, proiektu jakin bat ez ezik, lanbidetza harreman bat ere gertatzen da bertan behera halakoetan?**

**E** Bai, eta abiapuntura itzuli behar dugu. Komunitateentzat oso frustragarria da. Izan ere, tokian tokiko elkarteak laguntzea da gure egitekoa, jendea ahalmenez jabetu dadin; ez gara ura ematen edo eskolak eraikitzen ari. Prozesu luzeak dira, jendea bere etorkizunari begira ahalmenez janzteko prozesuak, hezkuntza etorkizuneko tresna ezinbestekoa dela ulertuta garatzen ditugunak, eta ez soilik —eta ez da gutxi— hezkuntza oinarriko giza eskubide bat delako, baizik eta, gainera, autogestiorako tresna nagusia delako. Eka, adibidez, helduen hezkuntza proiektuak moztu egiten dira, langile horiek lanik gabe geratzen dira... Sutsitutuz goazen ikate bat da.

**G Eka gero berriro hutsetik hasi behar dago?**


**E** Ez gara inoiz egon halako egoera batean, baina litekeena da.

**G Orain arteko murrizketarik gogorenak dira hauek?**

**E** Bai. Kezkatuta gaude, gero eta administrazio publiko gutxiagok jotzen dutelako nazioarteko gaur-penerako lanbidetza beren arduratzen. Ulertzen dugu krisia dagoela eta kopuru orokorra murriztu beharke dela; baina ez dugu zer-tan ulertu laguntzen portzentajea murriztea; proportzioak berbera



EDUCACION SIN FRONTERAS



Prestakuntza jasotzen zuten Boliviako Tarlia eskualdeko nekazariek, baina proiektua bertan behera geratuko da orain. ESF

izaten jarrai dezake, eta hori borondate politikoa araberako erabaki bat da. Herritar guztioi egiten dugun posible, geure zergekin, lanbidetza. Beraz, herri borondatearen arabera izan behar luke, eta ez borondate politikoa araberako. Kezka izustean dugu nola Brusko Jaurritzearen 2013ko aurrekontuetan laguntzak gutxitu diren. Uste dugu ez duela zentzurik. Elkartasunari egiten zaizkion murrizketen kontra gaurde erabat, zeren, azken batean, elkartasuna eta baliak hainbeste murriztuz, gizarte zikoitzak bilakatuko gara, baliu horiek beste batzuen aurretik jartzen ez dituzena.

**G Herritarren borondateaz mintzatu zara. Izango da, gauri nauetan bertan ere, hemengo erakundeen lana lehenik hemengoel laguntzea dela pentsatzen duenik, ez duzu uste?**

**E** Bai, agerikoa da, eta, gainera, zilegi da pentsatzea pobretu garelako, hortaz, lehenik geure herriko gizarte laguntza pentsatu behar dugula. Nik baletz esango nuke, hori dela lehen arloa. Baina ez dugun soilik gauza bakarrean pentsatzen; batek ez du beste kentzen. Litekeena da estandar

batzuk gutxitu behar izatea, baina ezinezkoa da pentsatzea gaurerako lanbidetzaren alde zuzendutako erakundeak, %70, desageratu direla eta orain %10 direla; nik ez dut sinesten. Kontua da beldurak estututa gaituztela, eta beldurak jendearen bizi-senagertzea eragiten duela. Egia da krisia oso gordina dela, baina egia da, era berean, estutzen gaituen beldur hori gaitetik kendu beharra daukagula, eredu ez baita dena murriztea lan, aukera eta etorkizun hobeak izateko, murrizketetatik ez baita etorkizunrik aterako.

**G Herritar xumei ere zailago izango zale orain ekarpenik egitea?**

**E** Bada, begira: badirudi jendeak instituzioek baino sen on handiagoa dutela, hainbat harpidedunek utzi baitute, baina baita berriak egin ere. 2012an, gure erakundean ia 200 bazkide gehiago ditugu. Horrek erakusten du —halako krisi hasatian, gainera— jendea ez dela ari logika horrekin funtzionatzen; jendea solidarioa da, bai hemengo gauzekin eta bai hangoekin.

**G Egoera berean daude zuen moduko erakunde asko, eta batzuk hasi**

**dira finantzaketa bide berriak bilatzen. Baduzue halako asmoren bat?**

**E** Bai, orain mikrodonazioak egiteko kampania bat dugu, *Aurreraz da eskolara itzuliko* lelopean, eta emaitzak ekartzen ari da. Sakelako bidez mikrodonazioak egiteko beste kampania bat ere hasiko dugu... Hainbat ekinaldi ari gara arrera eramaten. Noski, esnati behar izan dugu, eta eraginkorragoak izan. Ez dago gaitzik onik ez dakarrenik, baina gaitza oso handia da, eta ona, txiki-txi.

**G Egoera berean erakunde asko egonik, elkarlanean zerbait egitea planteatu al duzue?**

**E** Bai, ari gara ekinaldi batzuetan parte hartzen, eta hilaren 12an elkarretaratzeara egingo dugu Añuria Enearen aurrean, aurrekontuak ez daitezen onar gobernuko alderdiak proposatu bezala. Gauza asko ari gara egiten, eta orain lehen baino gehiago ari gara sarean lan egiten; are, hainbat erakunde batu eta elkarrekin lan egiteko aukerak aztertzen ari gara. Hainbat formula ari gara aztertzen gure helburuak galdutako gabe eraginkorragoak izateko. Baina denak du muga bat. Uste dut gizarte espasmoa bezala mobilizatzen dela, mugimendu sozialen gisan, badituztela une goren batzuk eta beste batzuk ia

«Estutzen gaituen beldur hori gainetik kendu behar dugu, murrizketekin ez baita etorkizunrik»

nik egiten ez dela diruditenak. Orain bi urte M-15a egon zen bezala, itxaropena dut udaberririo hometan zerbait piztuko dela, jende asko baitago oso minduta gauzak egiteko era bakarra galarrak sozializatzea eta irabaziak pribatizatzea delako ideiarerkin, hori ez baita posible. Guk bankuei ordaindu diegu, eta bankuak jendea kaleratzen ari dira egunero. Hori ez da posible. Halako batean herritarrek esango dugu «nahikoa da, honahon heldu gara», eta modu erabat bakesuan matxinatuko gara, badirelako gauzak egiteko beste modu batzuk.

**G Egoera beltz honen erdian, hala ere, bi proiektu berri martxan jarri behar dituzue, ezta?**

**E** Bai, eta ilusio handia dugu jarrita. Dominikar Errepublikan gaurtuko dugu bat, bi ardatzetan oinarrituta: batetik, lan mundutik at darduen emakumeek kooperatibak sortzeko proiektua handituz; bestetik, guraso haitarrak dituzten haur dominikarrei nazioartasuna eman diezazaiten lagunduz. Beste proiektua kulturartekotasunaren ingurukoa da. Biak dira politiak, eta oso itxaropetsuak, eta lan handia emango digute datozen bi urteetan.